

## 2014, familiako nekazaritzaren nazioarteko urtea

**E**likadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak, FAOk, 2014. urtea Familiako Nekazaritzaren Nazioarteko Urtea izendatu du. Horren helburua, munduaren arreta-gunea familiako nekazaritzan eta eskala txikiko nekazaritzan jartzea delarik eta nekazaritza mota horrek gosea eta pobrezia erazketan, jaki eta elikagaien segurtasunean, bizitzarako baliabideen hobetzean, natur baliabideen kudeaketan, ingurumenaren zaintzan eta, batez ere landa gunetako garapen jasangarria lortzeko bidean jokatzeko ahal duen paper garrantzitsuan.

Helburua familiako nekazaritza, nekazaritza, ingurumen eta gizarte politika guztien erdigunean kokatzea da, eta nekazari txikien erronken kontzientziazioa eta horiekiko ulerkortasuna handitzea eta familiako nekazaritzari laguntzeko modu eraginkorrak topatzea.

### Zer da familiako nekazaritza?

**N**ekazaritza familiarra nekazaritza, baso, arrantza, artzain eta ureko ekoizpena sailkatzeko modu bat da. Familia batek kudeatutakoa eta garatutakoa eta familia horren gizon zein emakumeen lana oinarri duena, eta ingurunean, sozio-ekonomian eta kulturaren paper garrantzitsua duena.

Garapenean zein garatuta dauden herrialdeetan, familiako nekazaritza da jakien ekoizpenerako nekazaritza mota nagusia.

**Familiako nekazaritzak garapen jasangarriari laguntzen dio.** Nekazari hauek laboreen dibertsifikazioan oinarritutako nekazaritza garatzen dute eta tradiziozko elikagaiak zaintzen dituzte; horrela, mundu mailako nekazal bioaniztasunaren zaintzari ekarpena egiten diote.

Estatu mailan familiako nekazaritza arrakastaz garatu dadin zenbait aldagai daude: nekazaritza ekologikorako



baldintzak eta lurraldearen ezaugarriak, gure inguruneko arauak, merkatuetara dagoen sarbidea, lur eta natur baliabideak eskura izatea, teknologia eta zabalpenerako zerbitzuak eskuratzeko aukera, finantziario aukerak, eta baldintza demografiko, ekonomiko eta soziokulturalak edo hezkuntza berezia jasotzeko aukera, besteen artean.

### Datuak

- Munduan dauden familiako nekazaritza-ustiategiak 500 milioi baino gehiago dira.

- Nekazaritza-ustiategi guztien ehuneko 98 dira.

Familia nekazariak planetako lur landagarrien zati garrantzitsu bat ustiatzen dute. Erregio bakoitzeko batzbestekoak honakoak dira:

- Asian ehuneko 85
- Afrikan ehuneko 62
- Iparramerika eta Ertamerikan ehuneko 83
- Europan ehuneko 68
- Hegoaldeko Amerikan ehuneko 18



**NATURGUNEA**

**Mutiloa plaza z/g  
(Udaletxe berria)  
Lehen solairua**

**Harrera ordutegia:**

**astearte eta ostegunak 11:30etik 13:30era**

**Telefonoa 948151382**

**medioambiente@aranguren.es**

# Hurrengo jarduerak

## Izen emateak 012ra deituaz

### Maiatza

#### INGURUMENAREN ASTEA 2014ko maiatzaren 13tik 18ra

Aurten ingurumenaren astea jarduera ezberdinekin opatuko dugu:

##### Asteartea, maiatzak 13

#### Kosmetika-naturalari buruzko tailerra

Artisau erara eta osagai naturalekin txokolatezko uken-  
du hidratatzailea eta hortzetako pasta egiten eraku-  
tsiko dizuegu. Bide batez, naturak eskaintzen dituen  
osasunerako onura eta propietateak ikasiko ditugu.

17:00etatik 18:45era, Mutiloako San Pedro ikastetxean.

Emalea: Lidia Ruiz, formakuntza dauka sendabelarretan eta  
kosmetika-naturalean eta Zakatingeko kosmetika-naturalari  
buruzko tailerrak ematen ditu 2011tik.

Izen emateak **maiatzaren 7ra arte**. Matrikula: 8 € erroldatuek eta 12 € erroldatu gabeek.

Hurtzaindegi zerbitzua, 5 €/familiako.

##### Asteazkena, maiatzak 14

#### Tailerra: toxikorik gabeko etxea

Garbiketarako produktu, kosmetiko zein haurren higie-  
nerako produktuak dituzten osagai kimikoak aztertu  
eta ingurumenerako erantzukizunekoak eta osasun-  
tsuak diren aukerak proposatuko dira tailer parte-hartzaile  
honetan.

18:30ean Kultur Etxean, Mutiloan.

Emaleak: Felip Araque, garbiketa ekologikoen Tierra enpre-  
sako koordinatzailea, eta Maite Palacios, sendabelarren lan-  
datze ekologikoan lan egiten duen ingeniari agronomoa.

Izen emateak **maiatzaren 7ra arte**. Doakoa, aurretik izena  
emanda. Hurtzaindegi zerbitzua 5 € familiako.

##### Osteguna, maiatzak 15

#### Mutiloako elikagai ekologikoen kontsumo taldea. Ate irekien eguna

Ingurumena eta beren osasunagatik arduraturik dauden  
familia talde bat dira eta zuzenean ekoizlearen eskutik  
bertako produktu ekologikoak eskuratzea dute helburu.

Horren funtzionamendua eta taldeko kideak ezagutu  
nahi dituzten pertsonak, hurrengo egun eta orduet-  
an Aranetxeatik, Gazte Lekutik, pasatu ahalko dute,  
maiatzaren 15ean, 13:45etik 14:15era edo 17:15etik  
17:45era.

##### Ostirala, maiatzak 16

#### Jostailu eta liburu erdiberrien azoka.

Borondatez lan egiten duen pertsona talde bat, elkar-  
tasuna helburu duen berrerabilera sustatzeko azoka  
antolatzeko martxan jarri da. Jostailu eta liburu erdi-  
berrien bilketa egingo dute eskolan eta ondoren, jasotakoak  
prezio sinbolikoan salduko dira ingurumenaren astean.  
Azoka horretan biltzen den dirua elkartasuna helburu duen  
zerbaitetarako erabiliko da. Hau dena antolatzeko lagun-  
du nahi duten pertsona gehiagoren laguntza eskatzen dute  
eta baita familia guztiena ere, jostailu eta liburu erdiberriak  
eman ditzaten.

Jostailuen bilketa eskolan: maiatzaren 12 eta 13an.

Azoka: Ostiralean, 16:30etik 17:30era, San Pedro Eskolako  
arkupeetan.

##### Larunbata, maiatzak 17

#### Baratza bertikalari buruzko tailer praktikoa

Terrazetan, lorategi txikietan eta horrelako leku txikie-  
tan baratx ekologikoak egiteko hastapenak. Edukiak:  
baratza martxan jartzeko oinarritzko irizpideak, behar  
diren materialak, diseinua eta urteko plangintza eta gure lan-  
dareen beharrak, osasuna eta emankortasuna.

9:30etik 13:30era, Ibaialde pasealekuko 186.eko udalaren  
egoitzan, Mutiloan.

Emalea: Ester Montero, Biologoa, Nekazaritza Ekologikoan  
Masterra.

Erroldatuak 10 €, 20 € erroldatu gabeak. Izen emateak  
**maiatzaren 7ra arte**.

#### Ibarreko tximeletak aurkitu eta begiztatzeko irteera familian.

Familia osoarentzako egokia den paseo gidatua.  
17:00etan Taxoaren.

Doako jarduera, aurretik izena emanda, **maiatza-  
ren 13ra arte**. Gidak: Zerynthia elkarteko, Yeray Monas-  
terio eta Ruth Escobés.

##### Igandea, maiatzak 18

#### Ingurumenaren jaia

San Pedro Eskolan

Egitaraua:

**11:00-12:30:** Ingurumen jolasak familian eta haurrentzako  
tailerrak (4 urtetik aurrera), berrerabilitako materialekin.

**12:30 -13:00:** Jostailu eta liburu erdiberrien azoka. Elkartasuneko berrerabilera.

**12:45:** Ibarrean eskuzabaltasunez ingurumenaren zaintza-  
rako lan egiten duten pertsonen omenaldia.

**13:00:** Landa-bazkaria: bokadilada ekologikoa. Tiketak, 2  
€-ko prezioan, jaialdiaren egunean bertan hartu ahalko dira.

## Ekaina

### Zakatina. Dirurik gabeko azoka.

**E**kainaren 15ean, 12:00etatik 14:00etara, Mutiloako Mutiloa plazan Zakatin berri bat egingo dugu.

Zakatinak dirurik gabeko azokak dira, berrerabileraren eta pertsonen arteko laguntzaren aldeko apustua egiten duen

kontsumo gizarteraen alternatiba bat. Haur eta helduentzako doako tailerrak egonen dira.

Hurbildu zaitetz egun horretan eta ekarri behar ez duzun **baina egoera onean dagoen** guzti hori. Zuk ere eraman nahi duzun zerbait topatzea oso erraza izango da: arropa, liburuak, etxetresna elektriko txikiak, jostailuak...

**Zakatineko laguntzailea izan nahi duzu? Deitu 665862118 telefonora eta jarri zaitetz Milarekin harremanetan edo Naturguneara deitu edo bidali e-posta.**

## Ingurune naturalaren zaintza eta babesa

### Ibarreko eguneko tximeleten jarraipenerako programa

**P**rograma 12 pertsonen borondatezko parte hartzearekin abiatuko da. Izugarrizko arrakasta! Honek Ibarrean 8 ibilbide osatzeko aukera emango digu, eta horietan bizi diren tximeletak aztertzekoa. Azterketak apirila eta urrian egingo dira, eta 2015erako izena eman nahi dutenek Naturguneararekin harremanetan jarri beharko dute.

### Aranguren ibarreko tximeleten gida

**A**le bat nahi duten erroldatutako guztiek dohainik jaso ahalko dute Naturgunearatik jendaurreko ordutegian pasatuz. Ale kopuru mugatua dago, ez gelditu zure alerik gabe!!



## Elikadura eta ekizpen ekologikoa

### Elikagai ekologikoak eskolako menuan

**M**aiatzean ekobuletinaren ale berri bat argitaratuko da. Soilik ikastetxeetan banatzen da, baina [www.aranguren.es](http://www.aranguren.es) webgunetik ere jaitsi dezakezu, Buletinen ataletik. Nahiago baduzu, Naturguneararekin harremanetan jarri eta etxera e-postaz bidaltzeko eskatu dezakezu.

Edizio honetan gurasoek jantoki osasuntsuari buruz duten ezagutza eta iritzia jasotzeko balioko digun inkesta sartuko dugu. Horren bidez, ikasleen elikadura ekologikorako ohiturak ezagutzeko aukera ere izango dugu. Jasotako galdetegi guztien artean produktu ekologikoz osaturiko bi saski zozketatuko dira.



### Eskolako baratza

**P**asa den martxotik martxan da San Pedro eskolako baratza. Gure borondatezko nekazari Juan eta Charori eskerrak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak baratza bateko oinarrizko lanak ikasten ari dira.

Baratza baliabide paregabea da pertsonak ingurune naturalarekin ditugun harreman eta menpekotasunak ikasteko: lurra, landareak, animaliak, eguraldia... baita elikagai fresko eta osasuntsuak, eta ingurumenari errespetuz landatutakoak, jatearen beharra barneratzeko ere. Eskolako patioan dagoen ikasgela dibertigarria.

**Lan honetan lagunduko diguten boluntario gehiago behar ditugu. Asteaz zehar goizen bat libre baldin baduzu, baratza eramaten baldin badakizu eta txikienei erakusteko gogoia baduzu, jarri zaitetz Naturguneararekin harremanetan telefonoz edo e-postaz.**

## Lehiaketak

### Ezagutu ibarra

**B**erriz ere hemengo floraren txanda. Esango al zeniguke zuhaixka honen izena gaztelaniaz eta euskaraz? Idatzi e-posta edo gutuna Naturguneara. Maiatzaren 30a baino lehen iristen diren asmatutako erantzun guztien artean, artisau erara egindako xaboi sorta bat zozketatuko da.

28. buletineko argazkia **arrosondo** edo **arkakarats**arena zen eta bere fruituarena, "mingarratz" izen arrunta hartzen duen arkakarats alea. Emandako erantzun zuzen guztien artean, Ana Mir Valencia izan da haur liburuaren irabazlea suertatu dena. Zorionak!.



### Aranguren Ibarreko ingurumen argazkigintza lehiaketa

**A**urtengo lehiaketaren lema "Diruarekin erosi ezin daitekeenaren balioa" dela gogorarazten dizuegu. Argazkiek Aranguren Ibarreko ingurune naturala erakutsi beharko dute, beraiekin gure ingurunearen gaur eta betiko edertasunaz gozatzeko aukera izan dezagun.

Argazkiak aurkezteko epea irailaren 23tik urriaren 21era egongo da irekita. Eskatu oinarriak Udaletxean edo jaitsi [www.aranguren.es](http://www.aranguren.es) helbidean.

## Hondakinak



### Iruñerriko Mankomunitatearen etxean konpostatzearen aldeko kanpaina

**M**aiatzean zehar kanpaina hau abiaraziko dela jakinarazten dizuegu. **Hiru baldintza** hauek betetzen dituztenek parte hartu ahaliko dute:

- Mankomunitateko esparruan bizitzea.
- gutxienez 50 metro koadroko berdegunea izatea (baratzea eta/edo lorategia).
- lehen etxebizitza izatea.

Parte-hartzaileei etxean konposta egiteko behar den materiala emango zaie (konposta egiteko ontzia, konpostatzearen gidaliburua, nahastekoa...) eta egiten ikasteko saio batzuk antolatuko dira.

Honako loturan izena eman dezakezu:

<http://www.mcp.es/residuos/campanas-de-compostaje-domestico> edo baita telefono honetan ere: 948 42 32 42,

## Mugikortasun jasangarria

**P**asa den otsailaren 16tik maskota eta bizikletak villavesan igo daitezke. Berrikuntza hau hiri garraioa arautzeko ordenantza berrian jasota dago, urtarrilaren 29ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Bizikletak tolestuta eta beste bidaiariei kalteak ekiditeko behar den bezala babestuko dituen zorro batean sartuta joan beharko dute. Fardelak ez du 100x60x25 baino gehiago neurtu beharko.

Orain arte itsuen gida-txakurrak bakarrik igo zitezkeen. Hemendik aurrera, 8 kg. baino gehiago pisatzen ez duten etxeko animaliak ere sartu ahaliko dira; beti ere, 55x36x35 baino gehiago neurtzen ez duen kaiola edo edukiontzi itxi baten barruan. Bidaiari bakoitzeko animalia bakarra onartuko da.